

**E**txarri Aranatz, 1983. Buruz burukoan kantatu du azken edizioetan eta anitz hurbildu da txapelera. Zortzigarren finala izanen du. «Nahiko normal, lanean eta etxean egin beharreko gauzak egiten» harrapatu dugu. «Hori, kanpotik ikusita. Barrutik, buruan finala beste ezer edukitzea nahiko zaila da. Kokatzen saiatzen eta eguna nolakoa izango den irudikatzen» ari da, baita gurea bezalako elkarriketei erantzuten ere. Beti amesten du txapelarekin, «badaezpada ere», dio irriz. Burua prestatzen saiatzen ari da jendetza baten aurrean kantatzeko, izan ere, finalista gehienek ez dute sobera kantatzen plazan. Lazkozek badaki zer topatuko duen gutxi gorabehera, beti ezberdina den arren.

**Zortzigarren finala izanik, ohitua zaudela iruditzen ahal zaigu, baina ez da hala.**

Lagunekin eta herrikideekin gertatzen zait. “Aurten txapelketa, berriz finalera, ezta?”, esaten didate. “Itxaron, lehenbizi finalerdietan kantatu behar dut”. Berez ahalmena badugu, baina gerta daiteke kanpoan geratzea. Beti sortzen dira zalantzak eta beldurrak. Saioa baino ordu erdi lehenago iruditzen zaizu ez duzula asmatuko bertso bat egiten. Horretaz aparte, justu aurtengo txapelketan izena emateko zalantza dezente izan nituen; aurreko Euskal Herrikoetik nahiko jota bukatu nuen animoz, kosta zitzaidan buelta ematea. Agian horregatik ere poz berezi bat sortu dit finalera iriste horrek, berriz bertsoarekin adiskidetzen ari naizelako. Balorea ematen hasi naiz urteotan egindakoari eta finalera sailkatzeari berari.



**ENEKO LAZKOZ MARTINEZ**

«Ze gaizki pasatzen dugun eta zenbat gustatzen zaigun txapelketa»

**Aurten Saats herrikidearekin kantatuko duzu.**

Bai, eta kristoren poza ematen dit. Jendeak idealizatua du gure herria, euskalduna delako, baina ez da batere bertsozalea eta bi bertsolari finalean aritzea handia da. Saatsek sekulako meritua du, gaztetan zertxobait ibili bazen ere oso berandu hasi zelako berriz bertsotan. Bere bizitzako txapelketa bateko bosgarren edo seigarren saioa izango du.

**Nola entrenatu zara?**

Saats eta biok aritu gara elkartzen eta kantatzen. Beti bezala, etxean lan egiteko asmo handiagoa izaten dut gero benetan egiten dudana baino. Oi-

nak lantzen saiatzen naiz, tarteka bertso batzuk idazten ditut, eta gehienbat, konturatu gabe txapelketan murgiltzean ia eguneko ordu guztietan burua bertsotara jarrita izaten dut, normalean baino alerta handiagoarekin.

**Zein poz eta zein arantza utzi dizkizu txapelketa honek orain arte?**

Ariketa zehatz batek ere ez dit arantzarik utzi. Jarrerak bai; erabaki batzuk hartzeko orduan, burua pixka bat *torpe* sumatu dut, batez ere lehen saioan. Bigarrenean kontzentratuago nengoen, eta espero dut finalerako beste koska bat igotzea. Presa gehiegirekin hasi naiz kantari batzuetan, segundo pare bat gehiago hartzea falta izan zait lasaitzeko. Zortziko handian eta bakarka uste dut eman dezakedan maila onenetik gertu ibili nintzela azken saioan, nahiz eta ariketa osoa hartuta aldatuko nukeen gauza bat edo beste. Oso sentsazio polita da ariketa bukatu eta esertzean “ederki egin dut!” pentsatzea. Ea halako gehiago tokatzen diren.

**Zer iruditu zaizkizu gaiak?**

Nafarroan zorte handia dugu gai-jartzaile taldearekin. Beti tokatzen zaizkigu, batez ere gaizki egiten dugunean, gustatzen ez zaizkigun gaiak, ongi egingo bagenu gustatuko litzazkigukeenak. Gizarteko gai ugarietara kabida emateko garaian, lan handia egiten dute.

**Nola ikusten duzu bertso maila txapelketan?**

Inoiz baino bertsolari gehiago daude finalean txapela irabaz dezaketela pentsatzen dutenak eta irabazi nahi dutenak; horretara joango direnak. Alaketatxo bat gertatu da hor.

Gazteago batzuk ere ikusi ditut saltotxo bat eman dutenak aurreko txapelketatik hona. Jendea badabil lanean gogoz, finala ere berritu da, eta hori denontzat da ona. Beti esaten dut finala berritzea oso ongi dagoela ni mantentzen naizen bitartean. Ez, hori brometan esaten dut.

**Txapela irabaz dezaketela pentsatzen dutenetako bat zara?**

Aurreko urteetan gertu ibili banaiz aurten zergatik ez. Zaila izango da, oso ongi egin behar dira gauzak hor ibiltzeko, baina uste dut nire maila onenetik gertu ibiltzea lortzen badut nire aukerak izan ditzakedala. Beste askok ere izango dituzte aukera horiek, eta presioak kalterik egiten ez badigu helburu handien nahi horrek, denok ere izango dugu zer esana. Azpitik gorako bide horretan beste koska bat igo eta batez ere nire buruarekin gustura gelditzeko gogoia dut, kantatzen dudana bertso bakoitzean ahalik eta ongien eta gehien gozatzeko gogoia. Horrek gero zerbait gehiago badakar, ongi etorria izango da.

**Nola bizi duzu lehia?**

Lehia txapelketaren zati garrantzitsu bat da, argi dago, baina azkenean lehiarik handiena bakoitzak bere buruarekin du eta txapelketek bertsotan hobeak izatea ekartzen digute denoi. Txapelketa batera goazenero, bertsokera finitzen joaten gara. Tarteka kolpeak ematen dituen arren, batzuetan oso gogorrak, eman ere asko ematen digu. Ze gaizki pasatzen dugun eta zenbat gustatzen zaigun! Errekonozimendu bat ere jasotzen dugu, nork ez du gustuko baloratua sentitzea.